


Año LIV. urtea

134 - 2022

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Euskal zenbatzaileen komunztadura- aldakortasuna Hegoaldeko testu zaharretan

Eukene Franco Landa

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIV. urtea - N.º 134. zk. - 2022

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Zergatik panpox: flâneusearen arrastoan

Irati Majuelo Itoiz

281

Luzaideko oikonimiaren azterketa: etxe izengoitiak

Peio Kamino Kaminondo, Patxi Salaberri Zaratiegi

309

Euskarazko elkarkari iragangaitzak: lexikoak ala sintaktikoak?

Kristina Bilbao Hernandez

337

NOR-NORI-NORK *irrealisak* Gipuzkoan: *eginen* hedadura eta **ezan* adizkien zenbait berrikuntza

Olatz Leturiaga Angoitia

375

Euskararen jabeakuntza testuinguru soziolinguistiko ezberdinetan:

zer esaten diguten haurren testuek kasu gramatikalen erabilerari buruz

Maidier Huarte

415

Euskal zenbatzaileen komuntzadura-aldakortasuna Hegoaldeko testu zaharretan

Eukene Franco Landa

439

VARIA

Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (II. dokumentu argitaragabeak)

Ekaitz Santazilia

471

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /

Rules for the submission of originals

491

Euskal zenbatzaileen komunztadura-aldakortasuna Hegoaldeko testu zaharretan

Variación de concordancia de cuantificadores en euskera a través de los textos antiguos de Hegoalde

Basque quantifier agreement variation throughout the old texts of Southern Basque Country

Eukene Franco Landa
University of Miami
eukenefrancolanda@miami.edu
<https://orcid.org/0000-0002-3515-9738>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv134.6>

Esker bereziak Blanca Urgelli eta Arantzazu Elordietari egindako oharrengatik, eta Koldo Ulibarriri testuak eskuragarri jartzeagatik.

Jasotze data: 2022/08/22. Behin-behineko onartze data: 2022/11/14. Behin betiko onartze data: 2022/11/28.

LABURPENA

Euskaraz aukerakoa da zenbatzaile lausoen komuntzadura plurala egitea (Etxeberria & Etxepare, 2009). Bi aldaerak mantentzea arkaismoa da, Hegoaldean galbidean dagoena (Txillardegi, 1978; Zubiri & Zubiri, 1994). Hegoaldeko datu sinkronikoak eta diakronikoak batu dira, bi helbururekin: (i) arkaismoa mantentzen den eta (ii) komuntzadura-aldakortasunak izan duen ibilbidea aztertzea. Hauek dira emaitzak: (i) Hegoaldean ez da komuntzadura eza onartzen, (ii) aldakortasuna desagertuz joan da, (iii) objektu zuzenaren funtzioa da komuntzadura gutxien eragin duena historikoki, eta (iv) mendebaldeko euskara arkaikoan posiblea zen kardinalen komuntzadurarik ez egitea, egungo Zuberoako arkaismoa (Coyos, 1999).

Gako hitzak: hizkuntzalaritza historikoa; plurala; aldakortasuna; diakronia; komuntzadura.

RESUMEN

En euskera es opcional que los cuantificadores indefinidos hagan la concordancia plural (Etxeberria & Etxepare, 2009). Mantener ambas variantes es un arcaísmo, en pérdida en el sur (Txillardegi, 1978; Zubiri & Zubiri, 1994). Reúno datos sincrónicos y diacrónicos del sur del País Vasco para: (i) observar si se mantiene el arcaísmo y (ii) analizar su desarrollo. Los resultados son: (i) no se acepta la falta de concordancia, (ii) la variabilidad ha ido desapareciendo, (iii) la función de objeto directo es la que menos concordancia ha hecho históricamente, y (iv) en euskera arcaico occidental era posible no hacer la concordancia plural con cardinales, arcaísmo conservado en Zuberoa (Coyos, 1999).

Palabras clave: lingüística histórica; plural; variación; diacronía; concordancia.

ABSTRACT

In Basque it is optional to have plural agreement with indefinite quantifiers (Etxeberria & Etxepare, 2009). It is archaic to maintain both variants, which is disappearing in the south (Txillardegi, 1978; Zubiri & Zubiri, 1994). Southern synchronic and diachronic data has been collected: (i) to see if the archaism is preserved and (ii) to analyze its development. The results are: (i) lack of plural agreement is not accepted, (ii) variability has diminished with time, (iii) historically, direct object is the syntactic function more likely triggering agreement, and (iv) in western archaic Basque, it was possible not to agree with cardinal quantifiers, an archaism kept in Zuberoa (Coyos, 1999).

Keywords: historical linguistics; plural; variation; diachrony; agreement.

1. SARRERA. 2. KOMUNZTADURA GAUR EGUNGO EUSKARAN. 2.1. Iparraldeko azterketa sinkronikoa. 2.2. Hegoaldeko azterketa sinkronikoa. 3. ZENBATZAILLEEN ERABILERA (HEGOALDEKO) TESTU ZAHARRETAN. 3.1. Aurreko ikerketak. 3.2. Corpusa. 3.3. Euskara Arkaikoa (1400-1600). 3.4. Euskara Zaharra eta Klasikoa (1600-1745). 3.5. Lehen Euskara Modernoa (1745-1890). 3.6. Datuen azterketa. 4. ONDORIOAK. 5. ERREFERENTZIAK. 5.1. Eranskina. 5.2. Eranskina.

1. SARRERA

Euskaraz, aditz laguntzaileak hiru argumenturekin (subjektua, objektu zuzena eta zehar-objektua) komunztatzen dira nahitaez, pertsonan (1., 2. edo 3. pertsona) eta numeroan (singularra edo plurala):

- (1) a. Nik sagarrak ekarri ditut
b. *Nik sagarrak ekarri dut

(1a) adibidean, osagarri zuzena (*sagarrak* determinatzaile-sintagma) pluraleko *-k* atzizkiaz markatuta dago. Pluraltasun hori objektu zuzenean zein aditz laguntzailean ageri da, objektua adizkian komunztatzen baita. Informazio hori aditz jokatuan kode-tuko ez balitz, emaitza ez litzateke gramatikala izango ((1a) vs (1b)).

Hala ere, bada fenomeno bat (behintzat) euskaraz non, pluraltasuna denotaturik ere, subjektuek edo osagarriek ez duten nahitaezko komunztadura eragiten. Bada, argumentuok zenbatzaile *ahul lausoez* –hala nola *asko*, *gutxi*, *hainbat*, *ugari*, *franko* edo *zenbait...*– modifikaturik agertzen direnean, bada zilegi komunztadura egitea (2b) edo ez (2a).

- (2) a. Nik sagar asko ekarri dut
b. Nik sagar asko ekarri ditut

Lan batzuetan hautazko komunztadura zenbaki kardinalarekin (*bi*, *hiru*, *lau...*) ere gertatzen dela aipatzen da (Etxeberria & Etxepare, 2009, 2012; Etxepare, 2000;

Txillardegi, 1978). Hala ere, Etxeberriak eta Etxeparek (2009, 11.-12. or.) espresuki aipatzen dute zenbaki kardinalekin komunztadurarik ez egitea ez dela zilegi, ez bada Zuberoan; hala ere, Zuberoako sisteman ere fenomeno hau oso murrizturik dago, objektu zuzenaren funtzioarekin besterik ezin bailiteke gerta (Coyos, 1999):

- (3) a. *Hiru ikaslek egin du
b. Hiru ikaslek egin dute
- (4) a. *Hiru ikasle jin da
b. Hiru ikasle jin dira
- (5) a. Bi urrats egin du
b. Bi urrats egin ditu

Fenomeno hau estuki lotuta dago euskal mugatzailearekin. Izan ere, Iparraldeko euskararen, eta bereziki Zuberoan, zilegi da mugagabea erabiltzea (6a), sagar kopurua entzulearentzako ezezaguna bada (cf. Casenave-Harigile, 2006; Coyos, 1999; Etxebarne, 2006; Manterola, 2011; Txillardegi, 1977). Orain ikusiko dugunez, euskararen historian, mugatzailea gramatikalizatuz joan da. Izan ere, *-ak* formak ez du soilik mugatutasuna islatzen, baizik eta numeroa ere bai (plurala, kasu).

- | | |
|-----------------------------|------------------------------------|
| (6) a. Nik sagar ekarri dut | (Zuberera) |
| b. Nik sagarra ekarri dut | (Euskara batua + beste euskalkiak) |
| c. *Nik sagar ekarri dut | (Euskara batua + beste euskalkiak) |

Euskaraz, IS diren argumentuek mugatuak izan behar dute nahitaez, hau da, *-a* determinatzaile zehaztua hartu behar dute (6b) (Artiagoitia, 2006, 2012; Etxeberria, 2012, 2014; Laka, 1993). Halaber, ezaugarri hau ez da berdin mantentzen euskalki guztietan, batez ere zubereraz. Zuberera euskararen aldaerarik arkaikoentzat hartzen da (Camino, 2014; Etxeberria, 2014; Mitxelena, 1964/1990), eta badakigu zubereraz testuinguru sintaktiko batzuetan argumentu nominal mugagabeak onargarriak direla (6a) (Casenave-Harigile, 2006; Coyos, 1999; Manterola, 2008; Mitxelena, 1987); euskara batuan eta gainontzeko euskalki gehienetan, ordea, ez (6c) (cf. Manterola, 2008).

Euskara batuan eta aldaera gehienetan, determinatzaileak bi irakurketa posible dauzka: zehaztua edo erreferentziaduna (entzuleak ezagutzen duen elementua mugatzen duena (7)) edo existentziala (8). Bi interpretazio horiek mantentzen dira argumentuen funtzioa subjektua zein objektua izan ((7) eta (8) adibideetan objektu zuzena da).

- (7) – Sagarrondoak sagarrez beteta zeuden. Bat ekarri dizut.
– Eskerririk asko, utz ezazu **sagarra** hemen, faborez.
- (8) – Beste ezer botako diozu entsaladari?
– Bai, **sagarra** botako diot.

Bestalde, zubereraz bi interpretazio hauek ez lirateke posible. Zubereraz, argumentu nominalen funtzioa objektu zuzena denean, bi dira aukerak. Determinatzaile mugatua agertzekotan (9), irakurketa zehaztua du nahitaez (Etxeberria, 2014, 7. or.); hau da, hiztunek lehenagotik aipaturako elementu bati egiten diote erreferentzia. Determinatzailezik ez mugatzekotan, ordea, irakurketa existentziala du (10). Hitz gutxitan, zuberera beste aldaeretatik bereizten da (9) edo (10) ereduiko perpausen objektu zuzenak interpreta-tzean (cf. Casenave-Harigile, 2006; Coyos, 1999; Etxebarne, 2006; Txillardeggi, 1977).

(9) Peruk **sagarra** jan du/dü

Interpretazioak:

- i. Zubereraz: Peruk sagar (ezagun) bat ekarri du, aurretik aipaturikoa.
- ii. Gainontzeko aldaeretan:
 - a. Peruk sagar (ezagun) bat jan du, aurretik aipaturikoa.
 - b. Peruk sagarra (masa, orokorra) jan du, aurretik aipatu ez dena.

(10) Peruk **sagar** jan *du/dü

Interpretazioak:

- i. Zubereraz: Peruk sagarra (masa, orokorra) jan du, aurretik aipatu ez dena.
- ii. *Gainontzeko aldaeretan: (ez-gramatikala, interpretaziorik ez)

Subjektu (absolutibo/ergatibo) funtziopean, ostera, zubereraz ez dira argumentu mugagabeak onartzen, argumentu mota horiek predikatu batek kontrolatu behar baititu (11-12) (Etxeberria, 2014, 9. or.).

(11) a. *Ikaslek sagar jan dü

b. Ikasleak sagar jar dü

(12) a. *Gizon jin da

b. Gizona jin da

Zubereran gorde den ezaugarri hori (determinatzaile mugagabea objektu zuzen-tan) antzina euskaraz orokorra zen (Manterola, 2012); gaur egun, aldiz, ez da gramatikala. Zubereraz ageri diren argumentu mugagabeek numero neutrala (cf. Corbett, 2000; Jespersen, 1924) daukate; hau da, singularrari edo pluralari erreferentzia egin diezaiokete (Etxeberria, 2014). Etxeberriari (2014, 16.-21. or.) jarraituz, determinatzaile mugagabeko sistematik (*sagar-Ø*) sistema mugatura (*sagar(r)-a*) igaro zen eus-kara, berranalisi semantiko baten ondorioz. Zehazki, determinatzaile gauzatu gabeak (*sagar-Ø*) bere ezaugarri semantikoak (elementu zehaztugabea edo ezezaguna izatea) galdu zituen. -Ø morfema oso ahula bilakatu zen. Ahoskatzen ez den morfema denez, eta semantikoki, erreferentziarik ezta zenbaki zehazturik ez duenez, haren ezaugarri semantikoak galduz joan zen. Gauzatu gabeko forma dela eta (-Ø), ezin da berranalizatu eta, ondorioz, desagertzen da (Etxeberria, 2014, 17. or.). Azkenik, -a determinatzaile zehaztuak determinatzaile gauzatugabearen funtzioak eta irakurketa existentziala (*sagar-Ø* > *sagar(r)-a*) hartzen ditu. Badirudi sistema-aldaketa hori jada martxan zegoela XVI. mendean, adibidez, Leizarragaren testuetan (1571) edo Lucio Marineo Siculoren hitz-zerrendan ikus daitekeenez (Martínez Areta, 2009a, 2009b).

Nahiz eta *-a* determinatzaile mugatuaren jatorrizko erabilera zehaztasuna izan, erakuslea jatorriz, denboraren poderioz markatzaile singular bilakatu da. Gauza bera gertatu da *-ak* determinatzaile pluralarekin (Martínez Areta, 2009a, 75. or.). Pluraleko forma hori (*-ak*) morfologikoki mugatua izan arren, lekukotasunetan erabilera zehaztugabearekin ere agertzen da (Martínez Areta, 2009b, 254. or.).

(13) *Beguiaç dituzuelaric, eztakusazue?* (Leiz., Mark VIII, 18)

Hori dela eta, Martínez Aretak (2009b) numeroaren gramatikalizazioa kategoria gisa iradokitzen du. *-a* determinatzaile mugatua \emptyset zehaztugabearen funtzioa hartzen ari zen prozesuan, determinatzaile mugatua hautazkoa zen garairen bat egongo zela adierazten du. Martínez Aretaren (2009b) arabera, numeroa kategoria gramatikalizatu baino lehen, erroa bera gramatikalizatu zen, eta *Gizon jin da* bezalako perpausek (12a) bi irakurketa zituzten: batetik, gizon bakarra, eta, bestalde, gizon asko. Zehaztugabe historiko horri Iturriozek (1985) *transnumeral* deitu zion; Martínez Aretak (2009b, 257. or.) ere baliatzen du termino hori. Singularrez komunztatutako aditzak pluraltasun nominala adierazi ahal izatea lotuta egon liteke gaur egun gorde den zenbatzaile zehaztugabeen komunztadura-aldakortasunarekin (cf. Martínez Areta, 2009a). Are gehiago, jakinda zubereraren kontserbatzen dela, euskalkien artean, hobekien (cf. Franco Landa, 2022) eta zubererak ere zenbaki kardinalekin komunztadura plurala egitea aukeran daukala (Coyos, 1999; Etxeberria & Etxepare, 2009). Martínez Aretak (2009a) adierazten duenez, ez dirudi singularraren eta pluralaren arteko oposaketa euskaraz oso zaharra denik. Esaterako, Irigoieni (1985/1987, 41. or.) jarraituz, badi-ra euskaraz izenak mugatzen dituzten elementuak, numero gramatikala ez daukatenak, baina ideia kolektibo bati erreferentzia egiten diotenak; adibidez, *oro* zenbatzailea (Martínez Areta, 2009a, 24. or.). Adibidez, *oro* mugagabeen komunztatzea gaur egungo ekialdean biziraun duen arkaismoa da, bizkaiera zaharrea ere bazegoena. *Oro* mugagabeen komunztatzen da, nahiz eta talde bati erreferentzia egiten dioten (Martínez Areta, 2009a, 86. or.):

(14) *Oroc dogu ardua bat, ta guztia tacoençat* (RS, 533)

Gaur egungo euskara batuaren gramatikan zenbatzaileek komunztadura singularra edo plurala onartzen badute ere, joera da aditz-komunztadurak ISaren semantikarekin bat egitea, batez ere, ekialdekoak ez diren hizkeretan (Martínez Areta, 2009a, 69. or.).

Zenbatzaileei dagokien fenomenoaren sinkronian gehien aztertu duten lanak Etxepare (2000) eta Etxeberria eta Etxepare (2008, 2009, 2012) dira. 1. taulak laburbiltzen du erabileraren inguruko haien teoria.

1. taula. Hiru sistemak (Etxeberria & Etxepare, 2009, 138. or.)

Komunztadura eza posiblea da?	Mendebalde-Erdialdea	Trantsizioa («Lapurdi»)	Zuberoa
Subjektu ergatiboa: <i>Neska askok lan egin...</i>	BAI (eza)	EZ (plur.)	EZ (plur.)
Subjektu absolutiboa: <i>Neska asko etorri...</i>	BAI (eza)	BAI (eza)	BAI (eza)
Osagarri absolutiboa: <i>Nik neska asko ikusi...</i>	BAI (eza)	BAI (eza)	BAI (eza)
Osagarri datiboa: <i>Hark neska askori liburua eman...</i>	BAI (eza)	BAI (eza)	EZ (plur.)
Zenbaki kardinalak ¹ osagarri zuzenean: <i>Zuk hiru ikasle ikusi...</i>	EZ (plur.)	EZ (plur.)	BAI (eza)

Etxeberriak eta Etxeparek (2009) hiru sistematan banatzen dute aldakortasuna, hizkeren arabera: mendebalde-erdialdea, trantsiziozkoa («Lapurdi») eta Zuberoa. Agerienez, sistemen ezberdintasun nagusia da zein funtzio sintaktikok onartzen duen aldakortasuna. Esaterako, Zuberoako sistema da zenbaki kardinalekin komunztadura-aldakortasuna onartzen duen bakarra. Horrez gain, zubererak ez du osagarri datiboak pluralerik ez komunztatzeke aukerarik. Azkenik, mendebaldeko sistemak edozein funtzio sintaktikoren zenbatzaile zehaztugabeen komunztadura-aldakortasuna du (Etxeberria & Etxepare, 2009, 138. or.).

Gaur egun, adituek zenbatzaileekiko komunztadura Iparraldean zein Hegoaldean hautazkoa dela dioten arren (Etxeberria & Etxepare, 2009), Hegoaldean arrotza egiten zaie hainbat hiztuni zenbatzaileak pluralerik ez komunztatzea (cf. Martínez Areta, 2009a). Hori dela eta, lan honetan Hegoaldeko datu sinkronikoak eta diakronikoak aztertuko dira, Hegoaldeko fenomenoaren garapena aztertzea helburu. Lanaren helburu nagusiak hauek dira, beraz: Euskal Herriko gazteen aldakortasuna aztertzea eta Hegoaldeko garapen historikoa zehaztea, hobeto uler dadin noiztik datorren pluralerik komunztatutako formekiko arrotzetasuna.

Lanaren egitura hau da: lehendabizi, 2.1. atalean, Iparraldean batutako datu sinkronikoei so egingo diegu, gerora (2.2. atalean) Hegoaldeko egoerarekin alderatzeko. Hirugarrenik, 3. atalean zenbatzaileen erabilera Hegoaldeko testu zaharretan aztertuko da. Hasteko, fenomenoari buruzko aurreko lanak laburbilduko dira (3.1. atala), eta hautatutako corpusa aurkeztuko da (3.2. atala). Ondoren Hegoaldeko testu historikoen analisisa egingo da. Azkenik, 4. atalean, lanaren ondorio nagusiak bilduko dira.

1 Etxeberriari eta Etxepareari jarraituz, taula honetan hiru sistemen arteko deskribapen osoa emateko, kardinalak komunztatzeke edo ez komunztatzeke duten gaitasunaren berri eman da. Hala ere, kontuan izanda *Norantz* (www.norantz.org) proiektuaren barruan landutako galdetegiak ez duela gai hau jorrazteko aukerarik ematen (numero-komunztadura eza ez da kardinalekin lantzen), lan honetan ez dira kardinalak landuko.

2. KOMUNZTADURA GAUR EGUNGO EUSKARAN

2.1. Iparraldeko azterketa sinkronikoa

Berriki, Franco Landak (2022) Iparraldeko hiru lurralde historikoetako datu sinkronikoak aztertu ditu Etxeberriak eta Etxeparek (2009) proposatutakoarekin alderatuz. *Norantz* (Oyharçabal et al., 2011) datu-basea erabilia, Iparraldeko hiztunen ekoizpenei begiratu die zenbatzaile lausoen komunztadura-aldakortasuna aztertzeko, aldagai sozial eta linguistikoak kontuan harturik. Ondorioztatutako emaitza nagusiak hauek izan dira (Franco Landa, 2022):

- Komunztadurarik gabeko formak gehien onartzen dituzten hiztunak ≥ 70 urteko zuberotar baserritarrak dira, eta gutxien ekoizten dituztenak 30 urtetik beheragoko hiztunak. Hiztun nagusiek emandako adibideen % 44tan ez dute komunztadura egiten; aldiz, gazteek emandako adibideen % 34tan besterik ez dute egiten. Horrez gain, nagusi guztiek ekoitzi dute perpausen bat komunztadurarik gabe. Gazteen artean, ordea, 32tik 10ek ez dute sekula komunztadurarik gabeko adibiderik eman. Beraz, badirudi komunztadura plurala ez egiteko joera galduz doala belaunaldiek behera egin ahala.
- Komunztadurarik gabe gehien agertzen diren zenbatzaileak *apur*, *guti* eta *sobera* dira, eta gutxien *anitz/lasko*, *aski* eta *zenbait*.
- Komunztadura falta gehien topatzen da izen-sintagmaren funtzioa osagarri zuzena denean, gero subjektu absolutiboarekin eta azkenik subjektu ergatiboarekin.
- Nahiz eta Etxeberriak eta Etxeparek (2009) deskribatu duten trantsiziozko eta Zuberoako sistemetan subjektu ergatiboak ez duen komunztadura faltarik onartzen, baieztapen hori eta *Norantz*eko datu sinkronikoak ez datoz guztiz bat. Oso kasu gutxi diren arren, zenbaitetan subjektu ergatiboa komunztadurarik gabe agertzen da. Hala ere, estrategia hori ez da gertatzen 70 urtetik gorako belaunaldian; beraz, berrikuntza izan liteke (Franco Landa, 2022, 58. or.).

Hurrengo atalean, Hegoaldeko lau lurralde historikoetako hiztunengandik batutako datuak aurkeztuko ditut, eta Iparraldean *Norantz* corpusean aurkitutakoekin alderatuko ditut.

2.2. Hegoaldeko azterketa sinkronikoa

Iparraldeko gazteen arteko aldakortasun faltari erreparatu eta gero, gaur egungo Hegoaldeko gazteen ekoizpena ere aztertu nahi izan dut, berrikuntzaren espazio geografikoa zehaztea helburu. Hegoaldeko lau lurralde historikoetako 18-35 urte bitarteko 35 gazteri galdeketa bat helarazi zaie, onargarritasun-juzguen berri jakiteko. Partehartzaileen % 70ek euskara dute H1, eta gainerako % 30ek H2 goiztiarra (De Houwer, 2009). Guztiak dira D ereduan ikasitakoak eta % 90ek goi-mailako ikasketak

dauzkate. Lagineko euskara-erabilerari dagokionez, denetarik dago: euren buruak oso euskalduntzat hartzen dituztenak (% 27), oso erdaldunak (% 22,5), eta euskararen eta gazteleraren erabilera orekatuta daukatenak (% 50). Azkenik, % 60 erosoago sentitzen da batuan, eta beste % 40 euskalkian.

Galdetegia *online* helarazi zitzaian, sare sozialen bidez, eta 18 esaldi aurkeztu zitzaizkien, 1-7 Likert eskalan puntuatu behar zituztenak (1 = batere ez onargarria; 7 = erabat onargarria). Haietatik zenbatzaileek modifikatzen dituzten ISetako sei subjektu absolutibo (Subj. ABS) funtzioa zeukaten, beste sei osagarri zuzenarena (OZ), eta beste sei subjektu ergatiboarena (Subj. ERG). Funtzio bakoitzeko sei esaldi eman ziren; bi esaldi *asko* zenbatzailea erabiliz, bi *gutxi* zenbatzailearekin eta bi *zenbait* zenbatzailearekin (2. taula). Guztira, 18 esaldi eman zitzaizkien.

2. taula. Onargarritasun juzguen adibideak

	Funtzioa	Zenbatzailea	Kmz	Batezbestekoa
Haur asko igo da mendira	Subj. ABS	asko	(-)	3 (35)
Haur asko igo dira mendira	Subj. ABS	asko	(+)	6,14 (35)
Neska gutxi iritsi da garaiz	Subj. ABS	gutxi	(-)	3,34 (35)
Neska gutxi iritsi dira garaiz	Subj. ABS	gutxi	(+)	5,66 (35)
Zenbait ikasle igerilekura joan da	Subj. ABS	zenbait	(-)	2,17 (35)
Zenbait ikasle igerilekura joan dira	Subj. ABS	zenbait	(+)	5,6 (35)
Gurasoek mutil asko eraman zuten parkera	OZ ABS	asko	(-)	2,43
Gurasoek mutil asko eraman zituzten parkera	OZ ABS	asko	(+)	5,83
Atzo zenbait sagar jan zenuen zuk	OZ ABS	zenbait	(-)	2,06
Atzo zenbait sagar jan zenituen zuk	OZ ABS	zenbait	(+)	4,97
Irakasleak ikasle gutxi ikusi zuen klasean	OZ ABS	gutxi	(-)	3,37
Irakasleak ikasle gutxi ikusi zituen klasean	OZ ABS	gutxi	(+)	5,97
Gizon askok seme-alabak eraman ditu klasera	Subj. ERG	asko	(-)	2,17
Gizon askok seme-alabak eraman dituzte klasera	Subj. ERG	asko	(+)	5,46
Maisu gutxik ikusi ditu ikasleak parkean	Subj. ERG	gutxi	(-)	2,86
Maisu gutxik ikusi dituzte ikasleak parkean	Subj. ERG	gutxi	(+)	5,14
Zenbait emakumek eskutik hartu ditu haurrak	Subj. ERG	zenbait	(-)	1,91
Zenbait emakumek eskutik hartu dituzte haurrak	Subj. ERG	zenbait	(+)	5,31

Emaitzei erreparatuz, argi dago komunztadura eza ez dela plurala bezain onargarria. Izan ere, komunztadura pluraldun adibideen batez bestekoa 4/7tik gorakoa da beti; komunztadura gabekoak, ordea, 1-3 tartean dabilta beti. Horrez gain, Iparraldean bezala, *gutxi* zenbatzaileak onartzen du komunztadura plural gutxien, eta ondotik ditu *asko* eta, azkenik, *zenbait*. Hala ere, lagin honetan funtzioaren araberako komunztadura ezaren onargarritasun-eskala honako hau da: Subj. ABS. > OZ > Subj. ERG. Hau da, funtzioa OZ denean, ez da komunztadura eza gehien onartzen den testuingurua, Subj. ABS denean baizik (tartea txikia bada ere). Iparraldeko datuetan,

aldiz, OZ funtzioak eragiten du komunztadura falta gehiago (cf. Franco Landa, 2022). Oro har, ISen funtzioa subjektu absolutiboa zein objektu zuzena izan, *gutxi* zenbatzailea da komunztadura plurala gutxien egiten duena batutako datuetan (3. taula).

3. taula. Onargarritasun-juzguen batez bestekoak

	Subj. ABS	OZ	Subj. ERG	Batezbestekoa
<i>Gutxi</i>	3,34	3,37	2,86	3,19
<i>Asko</i>	3	2,43	2,17	2,53
<i>Zenbait</i>	2,17	2,06	1,91	2,04
<i>Batezbestekoa</i>	2,83	2,62	2,31	

Hogeita hamabost parte-hartzaileetatik hogeitaseik ekoizpen-ariketan ere parte hartu zuten. Jarduera horretan hamazortzi irudi erakutsi zitzaizkien, eta irudia deskriba zezaten eskatu zitzairen. Irudia erakusterakoan, ikerlariak «Zer gertatu da gaur goizean?» galde-tzen zien, haien erantzunetan, ekoiztutako aditza burutua izan zedin (funtzio sintaktiko guztietako adibideak lortzeko). Horrez gain, zenbatzailea (*asko*, *gutxi*, *zenbait*) eta subjektu esplizitua eskatu zitzairen. Hala ere, askok ez zituzten jarraibideak bete eta adibide guztietatik parte-hartzaileek emandako zenbait perpaus alde batera utzi behar izan dira.

4. taulak erakusten duen bezala, subjektu absolutibo funtziodun perpausak dira komunztadura pluralik gabe gehien agertzen direnak; bigarren lekuan daude OZ daukatenak. Subjektu ergatibodun esaldietan, ordea, ez da behin ere ekoiztu komunztadura pluralik gabekorik. Etxeberriaren eta Etxepareren (2009) hiru sistemen arabera, Mendebaldeko sistemak komunztadura-falta onartzen du funtzioa subjektu ergatiboa dela; hala ere, onargarritasun-juzgua aztertzen zuen ariketan oso baxu puntuatu dira esaldi horiek, eta ekoizpen-ariketan ez da behin ere agertu. Bestalde, *gutxi* zenbatzaileak komunztadura plural gutxien eragiten du (46tik 6tan, % 13), gero *asko* (64tik 7tan, % 10,9) eta azkenik *zenbait* (58tik 1ean, % 1,72). Laburbilduz:

- Iparraldeko eta Hegoaldeko datu sinkronikoetan *gutxi* da komunztadura plural gutxien eragiten duen zenbatzailea, gero *asko* eta, azkenik, *zenbait*².
- Iparraldeko datu sinkronikoetan objektu zuzenaren funtzioa da komunztadura plural gutxien eragiten duen funtzio sintaktikoa. Hegoaldekoetan, ordea, subjektu absolutiboa, *gutxi* zenbatzailearekin, tarte txikiagatik bada ere. Bi kasuetan, subjektu ergatibo funtzioa duten adibideetan, hiztunek ia beti komunztatzen dituzte aditza pluralez.
- Oro har, bai Iparraldean, bai Hegoaldean, gazteek ia beti komunztatzen dituzte pluralez zenbatzaile lausoak.

2 Iparraldeko datuetan, askoz zenbatzaile gehiago aztertu ziren, hala nola *apur*, *anitz*, *gehiegi*, *sobera*...

4. taula. Ekoizpen-ariketaren emaitzak funtzio sintaktikoaren, zenbatzailearen eta komunztaduraren arabera

Ekoiztutako perpausa	Funtzioa	Zenbatzailea	Kmz	Hiztun kop.	(%)	Guztira
Pertsona asko joan da hondartzara	Subj. ABS	asko	(-)	6 / 22	% 27,2	10 / 59 % 16,9
Pertsona asko joan dira hondartzara	Subj. ABS	asko	(+)	16 / 22	% 72,7	
Parkean txakur gutxi egon da	Subj. ABS	gutxi	(-)	3 / 14	% 21,4	
Parkean txakur gutxi egon dira	Subj. ABS	gutxi	(+)	11 / 14	% 78,5	
Zenbait gizon parkera joan da	Subj. ABS	zenbait	(-)	1 / 23	% 4,3	
Zenbait gizon parkera joan dira	Subj. ABS	zenbait	(+)	22 / 23	% 95,6	
Neskatoak gaztelu asko egin du arean	OZ ABS	asko	(-)	1 / 26	% 3,8	4 / 75 % 5,3
Neskatoak gaztelu asko egin ditu arean	OZ ABS	asko	(+)	25 / 26	% 96,1	
Amaiak eta Jokinek zenbait kutxa eraman dute	OZ ABS	zenbait	(-)	0 / 20	% 0	
Amaiak eta Jokinek zenbait kutxa eraman dituzte	OZ ABS	zenbait	(+)	20 / 20	% 100	
Zaunkak ³ txakur gutxi ikusi du parkean	OZ ABS	gutxi	(-)	1 / 11	% 9,09	
Irakasleak ikasle gutxi ikusi du klasean	OZ ABS	gutxi	(-)	2 / 18	% 11,1	
Zaunkak txakur gutxi ikusi ditu parkean	OZ ABS	gutxi	(+)	10 / 11	% 90,9	0 / 34 % 0
Irakasleak ikasle gutxi ikusi ditu klasean	OZ ABS	gutxi	(+)	16 / 18	% 88,8	
Neska askok pizza jan zuen	Subj. ERG	asko	(-)	0 / 16	% 0	
Neska askok pizza jan zuten	Subj. ERG	asko	(+)	16 / 16	% 100	
Lagun gutxi ekarri zion oparia Anttoni	Subj. ERG	gutxi	(-)	0 / 3	% 0	
Lagun gutxi ekarri zioten oparia Anttoni	Subj. ERG	gutxi	(+)	3 / 3	% 100	
Zenbait umek gaztelua egin zuen hondartzan	Subj. ERG	zenbait	(-)	0 / 15	% 0	15 / 15 % 100
Zenbait umek gaztelua egin zuten hondartzan	Subj. ERG	zenbait	(+)	15 / 15	% 100	

Datuok erakusten dutenaren arabera, badirudi komunztadura plurala komunztadura ezari lehia irabazten ari zaiola, gazteek ez baitute ia ekoizten, ezta onartzen ere. Zubirik eta Zubirik (1994) eta Txillardegik (1978) ziotenaren arabera, komunztadurarik ez egiteko aukera mantentzea arkaismoa da, noizbait orokorra izan zelako Euskal Herri osoan. Hala ere, ez bata, ez bestek, ez dute eman hori frogatuko lukeen ebidentziarik, eta, hori dela eta, lan honek fenomeno hori diakronikoki aztertzea du helburu, ikusteko (i) Hegoaldean zenbatzaileak komunztadurarik gabe erabiltzen ote

3 Ariketan adierazten da *Zaunka* txakurraren izena dela.

ziren; (ii) hala izatekotan, noiz hasi zen fenomenoa indarra galtzen; eta (iii) *Norantzen* agertutako Iparraldeko joera sinkronikoak eta Hegoaldeko gazteen artean batutako datuak Hegoaldeko testuetan ere islatzen diren. Horretarako, XV.-XVIII. mendeetako Hegoaldeko testuak aztertuko dira zenbatzaileen komunztadurak izan duen garapena ikusi ahal izateko. Zenbatzaile komunztadura garaia, euskalkiaren eta funtzio sintaktikoaren arabera aztertuko da. Hurrengo atalean, berriki fenomenoaren inguruan eskainitako azalpenak eztabaidatuko ditut.

3. ZENBATZAILEEN ERABILERA (HEGOALDEKO) TESTU ZAHARRETAN

3.1. Aurreko ikerketak

Fenomenoa hainbat gramatikatan aipatu bada ere (Lafitte, 1944/1991; Zubiri & Zubiri, 1994, 2000), ematen diren deskribapenak nahiko azalekoak izan ohi dira. Gehienetan ez da azalpen semantikorik eskaintzen eta, agertzekotan, Txillardegik (1978) eta Euskaltzaindiak EGLU Iean proposatuko hipotesietara jotzen da. Gerora, Etxeparek (2000) eta Etxeberriak eta Etxeparek (2008, 2009, 2012) egin dute fenomeno horren azterketa sakonena. Hala ere, alderdi diakronikoari bakarrik bi autorek begiratu diote; beraz, horiengan oinarrituko gara atal honetan: Txillardegi (1978), Zubiri (1994) eta Euskaltzaindia (2021) dira.

Berriki, Euskaltzaindiaren *Euskararen gramatika*n (2021) *asko*, *zenbait* eta *gutxi* zenbatzaileek komunztadura plurala zein singularra egiteko aukera daukatela aitortu da. *Zenbait* zenbatzailearen gaineko azalpenik ez da ematen, ordea. Besteei dagokienez, hau azaltzen da: «*[askok]* komunztadura singularrez egiten du XVI. eta XVII. mendeetan. Lazarragak plurala ere erabiltzen du, eta XVIII. mendetik aitzina plurala hasten da nagusitzen» (Euskaltzaindia, 2021, 610. or.). Honetaz gain, EGLU Iean proposaturiko zenbakaitz vs zenbagarri interpretazioaren araberrako azalpena ere berreskuratzen da. Azkenik, *gutxi* zenbatzailearen inguruko azalpen zehatzago bat ekartzen da. Alegia, honek komunztadura plurala izen zenbakarriekin gehiago egiteko joera duela adierazten da; izen zenbakaitzekin, aldiz, komunztadura singularra (Euskaltzaindia, 2021, 617.-618. or.).

Txillardegiren (1978) ustez, bi interpretazio posible daude, aditzaren araberrakoak, zenbatzaileak (kardinalak edo ahulak) erabiltzerakoan: *bi liburu erosi dut* esatean, multzoa ageri dela dio, eta *bi liburuak erosi ditut* esatean, ostera, multzorik ez dela ageri, multzoa osatzen duten bi elementuak baizik. Txillardegiren ustez, *bi liburu erosi ditut* bi estrategia horien arteko nahasketa da, inguruko erdaratik datorren kalkoa, honelako kasuetan zenbatzaileak pluralak direlako gazteleraz zein frantsesez (Txillardegi, 1978, 37. or.). Euskara modernoan, zenbatzaile horiekin aipatutako bi numero-komunztadura aurkitzen badira ere, Txillardegik (1978, 65. or.) uste du erabilera bat bestea baino zaharragoa dela, eta inguruko erdararen eraginez (non zenbatzaile mota horiek pluralarekin agertzen diren), euskaraz ere pluralarekin erabiltzen hasi zirela. Aintzat hartuz Hegoaldeko eta Iparraldeko datuetan gazteen artean komunztadura plurala hobesten dela (belaunaldirik elebidunena izanik), ez litzateke harrizkoa ukipenak eragina izatea.

Bestalde, Zubirik, 1994ko *Gramática didáctica del euskera* lanean, egitura horiek komunztadura pluralarekin zein singularrarekin zuzenak direla dio. Hala ere, Txillardegiren antzera, fenomenoaren bilakabide diakronikoaren hipotesi bat proposatzen du: jatorrizko komunztadura singularra zela eta gerora pluralaren erabilera zabalduz joan zela defendatzen du, baina ez du hipotesi honen aldeko inolako justifikaziorik eskaintzen. Hurrengo atalean, azterketa diakronikoa gauzatzeko erabilitako corpusa aurkeztuko dut.

3.2. Corpusa

Azterketa diakronikorako, Lakarrak (ik. 5. taula) egindako periodizazioa erabiliko da denbora mugatzeko (cf. Lakarra, 1997; Mounole & Lakarra, 2018); zehazki, Euskara Arkaikoa (1400-1600), Euskara Zahar eta Klasikoa (1600-1745) eta Lehen Euskara Modernoa (1745-1890) garaiei dagozkien denbora-tarteak aztertuko dira (cf. Mounole & Gomez, 2018; Mounole & Lakarra, 2018; Urgell, 2018). Periodizazio hori hautatu da hizkuntzan oinarritutako irizpideak egina delako. Bestalde, dialek-talki, Bizkaiko euskara, Arabako euskara, Gipuzkoako euskara eta Nafarroako euskara hartu dira oinarritzat⁴. Aldaera aukeratzeko, euskal diakroniako autoritateek egindako testuen sailkapenak erabili dira, hau da, *Euskararen historia* (Gorrotxategi et al., 2018) liburuan egindako sailkapenak hartu dira kontuan.

5. taula. Euskararen periodizazioa (Lakarra, 1997, 516. or.)

1. Akitaniera (I-III. mendeak)
2. Erdi Aroko euskara (IX.-XV. mendeak)
3. Euskara Arkaikoa (1600 arte)
4. Euskara Zahar eta Klasikoa (1600-1745)
5. Lehen Euskara Modernoa (1745-1890)
6. Azken Euskara Modernoa (1891-1968)
7. Euskara batua (1968-)

Hegoaldeko euskararen zenbatzaileen aldakortasun sintaktikoak historian izan duen bilakabidea ikusteko, hiru aro historikoak euskalkien arabera banatu dira. Era honetan, saiatu gara aro eta euskalki bakoitzeko gutxienez bi lekukotasun egon zitezten. Hala ere, batzuetan ez dago lekukotasun nahikorik. Esaterako, gipuzkeraz ez da testu luzerik 1713ko Otxoa Arinen *Doctrina Christianaren* itzulpena heldu arte, eta beste batzuetan, nahiz eta izan, ez dakarte azter ditzakegun zenbatzailerik; adibidez, nafarrerazko *Kondestablearen Kantua* (1494) edo araberezko Portal (1610) testuak eskurgarri izan arren, ez dakarte zenbatzailerik.

4 Ez dut erabili Etxeberriak eta Etxeparek (2009) fenomenoaz aztertzean erabilitako banaketa geografikoa, hau da, Mendebaldeko sistema, Trantsiziozko sistema eta Ekialdeko sistema, ez daudelako muga geografikoak esplizituki zehaztuta. Beraz, banaketa hori erabiltzeak nik subjektiboki mugak ezartzea ekarriko luke.

Hortaz, zenbatzaileak komunztatu dituzten testuen adibideak bildu dira. 6. taulan miatutako corpora aurkezten da. Izartxo batez adierazita dauden testuek ez dakarte zenbatzailerik. Tradizio idatzi handia duten hizkeretatik (Bizkaiko euskara, kasu) corpora murriztu eta hautaketa bat egin behar izan da espazio eta denbora mugen-gatik; beraz, gure iritziz, garaia eta hizkera hobekien adierazten dituzten testuak (eta eskuragarrien daudenak) erabili dira atal honetarako. Iturrien zerrenda II. eranskinean ematen da.

6. taula. Arakatutako corpora, garaia eta euskalkiaren arabera

	Euskara Arkaikoa (1400-1600)	Euskara Zahar eta Klasikoa (1600-1745)	Lehen Euskara Modernoa (1745-1890)
Bizkaiko euskara	<i>Arrasateko Erreketa</i> (post 1448) Milia Lasturko* Juan Zumarraga (1537)* <i>Refranes & Sentencias</i> (R&S) (1596)	<i>Viva Jesus</i> (c. 1640) Mikoleta (1653) Kapanaga (1656)	Frai Bartolome (1807) Astarloa (1818) Añibarro (1821)
Arabako euskara	Landucci (1562)* Betolatza (1596) Lazarraga (c. 1602) ⁵	Portal (1609, 1610)* Barrutia (c. 1712)	Gamiz (1748, 1773)* Albeniz (1778)* <i>Laudioko dotrina</i> (1828)*
Gipuzkoako euskara	<i>Miserere Mei?</i> * Tolosako ezkontitzak (1557)*	Elduaingo ziri-bertsokak (1619)* Maria de Jesusen gutunak (1622)* Otxoa Arin (1713) Irazusta (1739) Kardaberatz (1744)	Iztueta (1824) Lardizabal (<i>Testamentu Berriko Kondaira edo Historia</i> , 1855)
Nafarroako euskara	Zalba & San Martinen gutunak (1415)* <i>Kondestablearen Kantua</i> (1494)* Ezkontza fedea: Zufia (1552)* <i>Gure Principe don Henrique Jaunari</i> (1554)* <i>Amenduxen Eresia</i> (1564)* Simancasko gutunak (1598)*	<i>Nafar katixima</i> (1614)* Beraiain (1621, 1626) Franzisko Elizalde (1735)	Larrasoanako hitzaldia (1702?) Etxalarko dotrina (1749)* Orrioko elizgutuna (1750)* Ororbiako sermoia (1758) Etxarriko idazkia (1762) Inzako izkribua (1772)

Zenbatzaileak aroka eta euskalkika aztertu dira (7.-15. taulak). Era honetan, aro bakoitzeko lau taula ageriko dira, bat euskalki bakoitzeko (bizkaiera, gipuzkera, arabera, nafarrera). Tauletan hautatutako obrak edo idazki zatiak banan-banan aztertu dira, bi zutabetan banatuz IS modifikatzen duen zenbatzailearekiko komunztadura

5 Joan Perez Lazarragako autorearen Euskara Arkaikoa (1400-1600) kokatu dut, nahiz eta bere obra 1602 inguruan kokatu duten adituek. Izan ere, badakigu urte gutxitara hil zela, 1605ean; beraz, bere euskara ezin liteke XVII. mendekotzat hartu eta, horrez gain, uste da arinagotik jada hasi zela poemak idazten, A27a poeman bere ama hilik dagoela aipatzen duelako, eta jakina da 1602an oraindik bizirik zegoela; beraz, bere azken urteetan idatzia behar luke izan (Bilbao & Gómez, 2015). Hori guztia eta hizkuntza-ezaugarriak kontuan harturik (bokal-bilkurak, alegiazko l...), garai honetan egotea egokiagoa dela iruditu zait.

gabe agertutako adibideak eta komunztadura plurala egin dutenak. Adibideetan beltzez markatu da zenbatzailea, eta adibide bakoitzaren ostean obran zein ataletan edota orrialdetan kokatzen den adierazi da parentesien artean. Azken horietan, laburdura iluna suerta daitekeela uste izan dudanean, oin-ohar batean zehaztu da esanahia. Azkenik, adibiderik ez bada aurkitu, marratxo baten bidez adierazi da. Bestalde, aipatu behar da tauletan komunztadurarik gabe agertzen diren adibideak aurkitu diren guztiak direla; aitzitik, komunztaduradun adibideak tauletan ageri direnak baino gehiago daude testuetan; horiek adibide batzuk besterik ez dira. Adibide batzuk grafia gaurkotuan ageri dira, Klasikoen Gordailuko edizioak horrela transkribatu dituztelako.

3.3. Euskara Arkaikoa (1400-1600)

3.3.1. Bizkaiko euskara

7. taula. Bizkaiko euskara arkaikoa

Autorea / Obra	Komunztadura eza (-)	Komunztadura plurala (+)
Arrasateko Erreketa (post 1448)	-	- <i>Joanicoc eta beste ascoc eudela parte bertan</i> (36)
R&S (1596)	- <i>Çe amaui emon deyat</i> (40) - <i>Tilista aroan amabost vrte det</i> (50) - <i>Arech asco dan vrtea besteac baño ez obea</i> (109)	- <i>Farata asco calean audiaca ebiltan dira ta oguiari leyoe jira</i> (48)

3.3.2. Arabako euskara⁶

8. taula. Arabako euskara arkaikoa

Autorea / Obra	Komunztadura eza (-)	Komunztadura plurala (+)
Betolatza (1596)	- <i>santiguatu egiten dozula iru kruze</i> (3) - <i>pekatu asko egindo dala</i> (12)	- <i>Amar mandamentu onek enzerretan dira bitan</i> (11)
Lazarraga (c. 1602)	- <i>Pedaçu asco eguin çan</i> (1142r) - <i>Ascoc ençuten dau</i> (1151v/52)	- [...] <i>go dira guchi baçu</i> (1141v) - <i>asi çirean lau musico</i> (1144r)

3.3.3. Gipuzkoako euskara

Aurkitu ahal izan diren testu bakarrak *Salmo Miserere* eta Tolosako ezkontzako hitzak (1557) dira. Hauetan ez da zenbatzaierik ageri, beraz, ezin izan da fenomenoaz aztertu.

3.3.4. Nafarroako euskara

Aurkitu ahal izan diren testu bakarrak *Kondestablearen Kantua* (1494) eta Martin de San Martin eta Martin de Zalbaren arteko gutun elebidunak, Zufia (1552), *Gure*

⁶ Araberaren kasuan, komunztadura plurala ez egitea, zehatzago, objektu pluralak pluralez ez komunztatzea, ez da derrigor aldakortasunaren seinale. Izan ere, euskalkiaren ezaugarria ere izan liteke. Adibidez, Betolatzen dotrinan eta Zigoitian jasotako datuetan objektu pluraleko numero-komunztadura noizbehinka egiten dute, eta Barrutiak beti egiten du; beraz, aldakortasuna dago fenomeno horren barnean ere. Horrela gertatzen da gaur egun Bergara-Antzuolan, Oñati-Leinz-Aramaion eta Zumarraga-Urretxun eta Goierriin (Zuazo, 1998a, 161.-162. or.).

Principe don Henrique Jaunari (1554), *Amenduxen Eresia* (1564) eta Simancasko gutunak (1598) dira, eta horietan ez da zenbatzailerik ageri; beraz, ezin izan da fenomeno aztertu.

3.4. Euskara Zaharra eta Klasikoa (1600-1745)

3.4.1. Bizkaiko euskara

9. taula. Bizkaiko euskara zaharra

Autorea / Obra	Komunztadura eza (-)	Komunztadura plurala (+)
<i>Viva Jesus</i> (c. 1640)	-	<i>Iru persona dire baye</i> (5)
Mikoleta (1653)	- [lagun] <i>Asco dago onac direanic</i> (13v)	<i>Bada lau falta dira</i> (15)
Kapanaga (1656)	- <i>daukana etsagunzaak ainbat montaña</i> (Esk. ⁸) - <i>Ainbat zeinda useetan dan konozenzia oneko personaen artean</i> (Dok. Kap. X) - <i>bedeinkatu dagiala iru persona</i> (Kon. Jen.)	- <i>zeinda akudidu ezin leien ainbat bider</i> (Esk.) - <i>Benturan dira iru laungoiko</i> (Dok. Kap. IV) - <i>Esazu bada Kristoren penaa ez zirean asko</i> (Dok. Kap. XI) - <i>Zerre direan beste pekatu askoen buruak, eta prinzipioak</i> (Dok. Kap. XV) - <i>onetan desonrarik izan zan askok iakiela</i> (Kon. Jen.) - <i>hazienda asko galduten dabela</i> (Kon. Jen.) - <i>gorde begiz iru gauza</i> (Kon. Jen.) - <i>daukaz onek iru parte</i> (Kon. Jen.) - <i>izan zirean persona gitxi erresuzitadurik ikusi ebeenak</i> (Deklarazionea, Meza)

3.4.2. Arabako euskara

10. taula. Arabako euskara zaharra

Autorea / Obra	Komunztadura eza (-)	Komunztadura plurala (+)
Barrutia (c. 1712)	- <i>Mila maña on erakusten dau</i> (353)	- <i>Salsa xaiten iru motrallu pedazadu nituan</i> (217) - <i>Kantore asko arkizen dira Jerusalengo temploan</i> (218) - <i>Kantore asko arkizen dira Jerusalengo temploan</i> (312) - <i>Mosu linduan argizen dira begi eder gorri bi</i> (342) - <i>Mila grazia emon eusan Jaun zerukoak aon</i> (352) - <i>Iru errege Mago izar baten azean, Bisitazera datos</i> (375) - <i>Mila barrion puntu onetan aditu ditut esean</i> (415) - <i>Adi, adi, adi, adi, adiezazuz berba bi</i> (463) - <i>Milla grazia emon bekioz</i> (492) - <i>Lian lanbere irunsi ditu eunda ainbat gaztaña</i> (Gracioso)

7 Eskaintza: *Al ilustrisimo Señor Don Ivan Ioaniz y Echbalaz.*

3.4.3. Gipuzkoako euskara

11. taula. Gipuzkoako euskara zaharra

Autorea / Obra	Komunztadura eza (-)	Komunztadura plurala (+)
Otxoa Arin (1713)	<ul style="list-style-type: none"> - <i>zeñaren kausas askok egin oi dituen ezer balio ez debean Matrimonioak</i> (Kap. IV, VII) - <i>edota askok ziakiana, edo publikoa zalarikan ere, esan ote zeban atsegin zebalarik, kontatzen zeban gaitz andi arzaz</i> (Kap. VI, VIII) 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>leenengo iru Krutze aek arzeen dituana, eginaz konfesatzen degu, iru Persona aek distinta, edo diferenteak izan arren, irurak dabeela naturaleza dibina bat</i> (Kap. I, I) - <i>Hostia asko Sazerdoteak konsagratzen dituanean</i> (Kap. I, III) - <i>egiten ditut iru Krutz beatz andienaz</i> (Kap. I, I) - <i>zazpi urte zituanetik amabi urte zituaneraño</i> (Kap. VI) - <i>Kastidadearen kontra pensamentuak adbertimentuarekin konsentitzen dituen persona asko</i> (Kap. VI, VI) - <i>eta au berau segitzen debe San Antoninok, Eskotok, Durandok, eta beste Doktore askok</i> (Kap. V) - <i>persona asko ediro litezke euren kulpaz [...]</i> (Kap. VI, VI) - <i>Ignorante askok uste debe</i> (Kap. VI, VIII) [...]
Irazusta (1739)	-	<ul style="list-style-type: none"> - KONTZIENTZIA EGUNERO ESAMINATZEKO MODUAK DITU BI TEMPORA - <i>Iru Jaungoiko dira?</i> (Dok. I) - <i>onegatik ditu Semeak bi naturaleza</i> (Enk.) - <i>iru Personak [...]</i> egin bazeben ere obra soberano au... (Enk.) - <i>Ematen diozkat grazia asko nere Jesu-Kristo Jaunari</i> (Esp.)
Kardaberatz (1744)	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Nola billduko du Kristabak egunoro ondasun asko?</i> (7. p.) - <i>Gure Aita San Ignaziok, te beste askok zor izan ziotela beren Jainkoagana biurtzea</i> (9. p.) 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>askok oi dituzten bezala</i> (5. p) - <i>Gauza bi guztien gañean dira bearrenak goizean</i> (6. p.) - <i>Gizon jakinsunak kontatzen dute bizi zirala erri batean bi nekazari bear modu batekin</i> (6. p.) - <i>Meza gutxi ekusten zituela</i> (6. p.) - <i>Askok oietatik egiten zuten kontu au birretan</i> (8. p.) - <i>orain esango dizkitzudan hiru gauza oiekin</i> (8. p.) - <i>Aita San Ignaziok, ta San Juan de Diosek, zerutik argiturik, irabazi zituzten asko anima bide onetatik</i> (9. p.) - <i>bada hiru Erreino kendu ziozkanakatik</i> (9. p.) - <i>Baña eztute askok lekurik izango</i> (10. p.) - <i>Gauza bi artu itzatzu guztien gañean</i> (10. p.) - <i>txit askok gordetzen dutela, bere animen erabazi andiarekin</i> (10. p.) [...]

3.4.4. Nafarroako euskara

12. taula. Euskara Zaharreko Nafarroako euskara

Autorea / Obra	Komunztadura eza (-)	Komunztadura plurala (+)
J. Beriain (1621)	<ul style="list-style-type: none"> – <i>anbat milagro egin zuena</i> (Kap. I) – <i>Mezan egiten zaionean laungoikoari anbat zeruizu, eta ematen zaionean anbat kontentu nola erran baita</i> (Kap. II) – <i>laungoikoareki eskazen diogunean anbat gauza</i> (Kap. III) – <i>Meza enzuten duena baitago negoziazen laungoikoareki eskazen diola auniz gauza</i> (Kap. III) – <i>zeren egin baitut bekatu auniz</i> (Kap. VI) – <i>laungoikoaren borondateareki kunplizeagatik egin ziola anbat ofrezimentu juramentureki</i> (Kap. VI) – <i>nola askok onla eskazen baitu, onlakoek eztute erdetsiko eskazen dutena</i> (Kap. VII) – <i>[...] eta ala izandu zuela auniz Iaun, eta nagusi</i> (Kap. IX) – <i>ez jakitetik dator anbat kalte</i> (Kap. X) 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Aingiruek, eta sandu guziek eman drazokete anbat honra</i> (Kap. II) – <i>Meza enzutera goazenean egin bear dirade bi gauza</i> (Kap. III) – <i>Daudela gureki anbat Aingeru begirazen gaituztenak</i> (Kap. III) – <i>juntazen ditu bi eskuak</i> (Kap. IV) – <i>Aingeru auniz juntaturik kantatu zuten</i> (Kap. IV) – <i>anbat profetek, eta Erregek ain denbora luzean deseaturikako itzak, eta ezpaizituzten enzun</i> (Kap. V) – <i>Anbat Aingeruek akonpañazen, adorazen, eta alabazen dutela</i> (Kap. VI) – <i>atra ziradela Iai egun bates, bi lagun ziudade batetik [...]</i> (Kap. IX) – <i>onen kausas aunizek nai zutela beren etxetan iduki</i> (Kap. IX) – <i>eze auniz baitoaie Mezara</i> (Kap. X) [...]
Franzisko Elizalde (1735)	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Ni bekatorea, konfesazen naiz [...]</i> eta <i>neure Aita Konfesore orri aniz bekatu egin dudala</i> (Kon. Jen.) – <i>Mandamentu onen kontra berze zenbaitek egiten du bekatu</i> (Kap. VII, III) 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Kristok bi naturaleza ditu?</i> (Kap. I) – <i>Ikusi ditut aniz libru debozio andieki egun guziko [...]</i> (AuAT)

3.5. Lehen Euskara Modernoa (1745-1890)

3.5.1. Bizkaiko euskara

13. taula. Bizkaiko Lehen Euskara Modernoa

Autorea / Obra	Komunztadura eza (-)	Komunztadura plurala (+)
Frai Bartolome (1807)	-	<ul style="list-style-type: none"> - Munduko baztar <i>gitxik</i> buruba jasota esan leije (Esk.⁹) - Esango dot palta <i>asko</i> daukazala (Irak.) - Ta menturaz ez da <i>askok</i> uste daben baisen obra gatxa mundubaren erremedijetia (I, 0) - Kristinau <i>asko</i> dagoz, baña ez dakije geijenak zer dan kristinau izatia (I, I) - <i>iru</i> modutarakuak diriala legiak edo mandamentubak (I, II) - Meziak parte <i>asko</i> daukaz (II) - Ugazabaak obligazinoe <i>asko</i> daukeez otseginetzako (IV, I) - Pobreentzako palazijo <i>gitxi</i> munduban iminten dira (IV, II) - Okasinoe <i>gitxi</i> galdu ditut neure Sermoietan (IV, Serm) - Gauza donga <i>bi</i> egin ditubee nire jentiak (V, II) [...]
Astarloa (1818) Asko gitxi	<ul style="list-style-type: none"> - Juramentu <i>asko</i> egiten daben gizona pekatuz beteko da (XXVIII. b) - zaarrak, ado atso agura urte <i>asko</i> daukenak (XLV) 	<ul style="list-style-type: none"> - Ekuzan batetik, ze <i>gitxi</i> zirian beragaz eukazanak (Esk.) - Birao <i>asko</i> egotzi ditudaz (XXVII) - <i>Ainbat</i> atxakija billatu oi dozuz (XXVII) - Azkenengo egunian <i>askok</i>, eta <i>askok</i> esango deutse Jasu-Kristori (XXVIII. b) - obra on <i>asko</i> egin zitubezalako (XXXI. b) - dendari <i>asko</i> abijetan dira biarrian zapatuban (XXXIII. b) - egiten dabee pekatu mortal dendari, zapatari, errementari, eta beste onelako ofizijoko <i>askok</i> (XXXV. b) - Gauza <i>bi</i> dagoz ordikerijan (XXXVIII. b) - Beraz zuk pisu <i>bi</i> daukazuz (XLIV. b) - egiten badeuskubez <i>ainbat</i> mesede (LIII. B) [...]
Añibarro (1821)	-	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Iru</i> gauza dira oraziño eukiteko geien bear dozuzanak (II. Sart.) - [...] eta beste onelango neka-aldi <i>asko</i>, buruak emongo deutzuzanak (II., 25. eguna) - Yerusalenera sartzaieran Uri atako <i>askok</i> esan eutseezan alabantza ta pozkariak (Mez-Em., Sant.)

8 Eskaintza: «Bizkai guztiz noblea ta guztiz leijaleko kura jaunai».

3.5.2. Arabako euskara

Aztertu diren testu bakarrak Gamiz (1748, 1773), Albeniz (1778) eta *Laudioko doctrina* (1828) dira, eta batean ere ez da zenbatzailerik ageri; beraz, denbora mugengatik ezin izan da fenomenoaz aztertu garai honetako arabera momentuz.

3.5.3. Gipuzkoako euskara

14. taula. Gipuzkoako Lehen Euskara Modernoa

Autorea / Obra	Komunztadura eza (-)	Komunztadura plurala (+)
Iztueta (1824)	<ul style="list-style-type: none"> – <i>gutxi</i> egon nai oi du, illaren aldean. (Itz., 11) – <i>Asko</i> ezjakiñek farra eta ixeka egingo du joku mota oen izenak enzutean (Zortz., 2. zatia) – <i>Askok</i> deseo zuen, kantuz ikustea. (Itz.) – zergatik gure dantza motak diraden txit eginkizun asko dutenak (II) – Ezagaturik ongi zein baliosoak diraden (<i>askok</i> ala uste ez badu ere) (Er.) 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>gaurko</i> egunean dantzaren izenean plaza agirikora irteten diraden <i>anitzek</i>, zatarkeria gaitz bidariak egiten dituztena ere (II) – gizon jakinsun <i>askok</i> beren obra gogoangarrietan egin izan diozkaten (II) – Txoriburu <i>zenbaitek</i> ala uste ez badute ere (II) – Egia da, txit <i>gutxi</i> diradena Gipuzkoan (II, Dan.) – eta <i>anitz</i> onkai ditu brokel dantzaren gañean (III) – Lagun <i>gutxi</i> batutzen diraden errietan, jarri oi dira bi lerrotan (Ezp. D) – <i>zenbait</i> ollaisko makilletan dituztela (Az.D) – eman diozkat <i>bi</i> bellarrondoko (Gip D.) [...]
Lardizabal (1855)	-	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Jesusek</i> beste gauza <i>asko</i> ere Nikodemori erakutsi ziozkan (II, 5) – Ots onetara erriko <i>asko</i> Jesusi joan zitzaiozkan (II, 6) – <i>Askok</i> egun artan esango didate (III, 2) – <i>Bi</i> edo <i>iruk</i> agiria eman dezaten (V, 7) – Gizon batek <i>bi</i> seme zituen (V, 13) – <i>ala</i> ere, isillik bederik, <i>zenbait</i> galdu zituzten (XVII, 8) – <i>bi</i> anak autsi zitzaiozkan (XIV, 2) [...]

3.5.4. Nafarroako euskara

15. taula. Nafarroako Lehen Euskara Modernoa

Autorea / Obra	Komunztadura eza (-)	Komunztadura plurala (+)
Larrasoañako hitzaldia	-	– <i>icus dezatem claro, ai bezazquite bi sucesso prodigioso</i> (750) – <i>Jaquindu zue San Nicolasec iru nescacha castidadea guardazem zutenec peligrazen zutela</i> (750) – <i>Lendabicoari ematen dizquio borz porcione</i> (751) – <i>Lendabicoa biec empleatu vaicituzte desinteresatuec vezala talentuac</i> (751) [...]
Ororbiako sermoia (1758)	-	– <i>becatu iten zuten aldiro, egosten ciçen disquio aniz maldicio deabrueren contra</i> (I) – <i>Eta cein disposicio gutirequi começaçen dire berçe aniz!</i> (II)
Etxarriko idazkia (1762)	-	– [...] <i>congregacioco cembait erregla explicacen dire lendabicoa capitulo onetan</i> (Kap. 1, 1) – [...] <i>eguiñen dizquio arquicen den lecuti-c beincet bost visita</i> (Kap. 4, 3)
Inzako izkribua (1772)	-	– <i>Erri zeinbeitetan vi parroquie badire</i> [...] (2)

3.6. Datuen azterketa

Testuak aztertu eta gero, balorazio bat egin da tauletan, komunztadurarik gabeko agerpenak eta komunztadura pluraldunak euskalkiaren eta garaiaren arabera sailkatuz, eta bigarrenean funtzioaren arabera ere bai (16. taula).

Garai guztietako lekukotasunak dituen hizkeran, Bizkaiko euskarari, argi ikus daiteke zein den joera, alegia, komunztadurarik ez egiteak behera egiten duela denboraren poderioz (bizkaiera eta nafarreraren kasuan erabilera zerora murrizteraino). Gainontzeko euskalkiei dagokionez, joera bera suma liteke, nahiz eta ezin den erabat baieztatu, datu falta dela eta; halere, egia da Euskara Zaharretik aurrera komunztadura plurala egiteko joera nabarmen hazten dela. Euskalkien artean nafarrera bereizten da besteetatik; izan ere, Euskara Zaharrean zortzitan agertu dira komunztadurarik gabeko adibideak, behintzat, arakatutako corpusean. Hori Beriaini (1621) egotzi behar zaio hein handi batean, komunztadura gabeko formak gehiagotan erabiltzen baititu besteak baino, eta gainera, bere obra luzexka izanda, adibide gehiagorekin topo egiteko aukera ematen digu. Gainera, berriki topatu diren Jose Ramon Minondoren gutunek (1790-1807) ere erakusten dute Oiartzun eta Goizuetako burdinolek Ipar Euskal Herrikoekin harremana bazeukatela, Ainhoakoarekin, Donibane Lohizunekoarekin eta Ziburukoarekin, kasu (Salaberri et al., 2021).

Azkenik, aipatu nahiko genuke Bizkaiko eta Arabako Euskara Arkaikoan eta Zaharrean zenbatzaile kardinalekin ere komunztadura falta lekukotzen zela. Betiere,

funtzioa Objektu Zuzena dela. Hala ere, testu beretan kardinalak pluralez agertzen dira adibide gehienetan. Gainontzeko garaietan eta euskalkietan ez da horrelakorik ageri⁹. Orokorrean, joera komunztadura plurala egitea zen, denboraren poderioz handituz joan zena.

16. taula. Komunztadura (+/-) euskalki eta garaieren arabera

+/- KMZ	E. Arkaikoa		E. Zaharra		LEMa		GUZTIRA	
	-	+	-	+	-	+	-	+
Bizkaia	3	2	4	11	0	119	7	132
	% 60	% 40	% 26	% 73	-	% 100	% 5	% 95
Araba	4	3	1	10	-	-	5	13
	% 57	% 43	% 9	% 91	-	-	% 28	% 72
Gipuzkoa	-	-	4	18	5	141	9	159
	-	-	% 18	% 82	% 3	% 97	% 5	% 95
Nafarroa	-	-	12	9	0	7	12	16
	-	-	% 57	% 43	-	% 100	% 43	% 57
GUZTIRA	7	5	21	48	3	+32	33	320
	% 58	% 42	% 30	% 70	% 9	+% 91	% 9	% 91

Euskalki eta aro bakoitzean funtzio sintaktikoaren (subjektu absolutiboa edo ergatiboa eta objektu absolutiboa) komunztadurari ere erreparatu diogu eta, horretarako, 17. taulan sailkatu dira komunztadurarik gabe agertzen diren adibideak, funtzioaren arabera. Komunztadura plurala gutxien egiten duen funtzioa objektu zuzena da, gaur egongo Iparraldean ikusten den joera bera (Franco Landa, 2022). Dena den, aintzat hartu behar da garai guztietako euskalkietan ez dela komunztadurarik gabeko adibiderik agertu funtzio sintaktiko guztiekin; Euskara Zaharreko nafarreraz bakarrik aurkitu dira pluralean komunztatzen ez duten zenbatzaileak, hiru funtzioetan.

9 Zenbaki kardinalak pluralez komunztatuta Bizkaiko eta Arabako euskara Arkaiko eta Zaharrean besterik ez dira zenbatu. Gainontzeko kasuetan, zenbaki kardinalen % 100 pluralez komunztatu da.

17. taula. Komunztadura gabeko agerpenak funtzioaren arabera

Funtzioa (-KMZ)	E. Arkaikoa			E. Zaharra			LEMa			GUZTIRA		
	S. ABS	O. ABS	S. ERG	S. ERG	O. ABS	S. ERG	S. ABS	O. ABS	S. ERG	S. ABS	O. ABS	S. ERG
Bizkaia	1	2	0	2	1+1	0	0	0	0	3	4	0
Araba	0	2+1 ¹¹	1	0	0+1	0	-	-	-	0	4	1
Gipuzkoa	-	-	-	0	1	3	0	1	4	0	2	7
Nafarroa	-	-	-	3	7	2	0	0	0	3	7	2
GUZTIRA	1	5	1	5	10	5	0	0	3	6	17	10

Zenbatzaileei dagokienez, agerpenenik gehienak (% 92) pluralez komunztatuta agertu dira (18. taula). Ikusi bezala, denborak aurrera egin ahala, pluralez komunztatzeko joera ere zabalduz doa. Lekukotasunetan, gehien agertzen diren zenbatzaile lausoak *asko* da; zenbatzaile kardinalak ere presentzia handia dute. Agerpen kopurua ez dago orekaturik, izan ere, *asko* zenbatzailea 200 aldiz baino gehiago lekukotu den bitartean, *zenbait* zenbatzaileak 7 aldiz besterik ez da agertu. Bestalde, gutxien agertzen direnak *zenbait* eta *gutxi* dira, hurrenez hurren. Agerraldi guztien artean, *hainbat* eta *anitz* zenbatzaileak dira komunztadura gutxien eragin dutenak, eta gehien, bestalde, *asko* eta *gutxi* zenbatzaile lausoak. Hala ere, joera orokorra pluralez komunztatzea da.

18. taula. Zenbatzaileen araberako komunztaduraren aldakortasuna

	Komunztadura eza (-)	Komunztadura plurala (+)	Guztira
(H)ainbat	8/24 (% 33,3)	16/24	24
A(u)ni(t)z	4/19 (% 21)	15/19	19
Zenbait	1/7 (% 14,2)	6/7	7
Asko	13/279 (% 4,6)	266/279	279
Gutxi	1/23 (% 4,3)	22/23	23
Kardinalak	5/171 (% 18,7)	166/171	171
GUZTIRA	32/523 (% 6,1)	491/523 (% 93,8)	523 (% 100)
Ez-kardinalak	27/352 (% 7,6)	325/352 (% 92,3)	352 (% 100)

Laburbilduz, komunztadurarik gabeko lekukotza gehienak funtzioa objektu zuzena denean gertatu dira, gaur egunean Iparraldean gertatzen den modura. Halaber, badirudi, Iparraldean ez bezala, subjektu ergatiboak ere ez zuela beti komunztadura plurala eragiten. Azkenik, iraganeko Hegoaldean ez bezala, gaur egun, Euskal Herri osoan *gutxi* eta *apur* zenbatzaileak dira komunztadura plurala gutxien eragiten dutenak.

10 Hauetatik, ezkerreko zenbakiak zenbatzaile zehaztugabeekin emandako adibide kopurua adierazten du; eskuinekoak, ostera, zenbaki kardinalekin emandakoa(k).

4. ONDORIOAK

Lan honetan Euskara Arkaikoko, Euskara Zaharreko eta Lehen Euskara Modernoko Hegoaldeko lau lurralde historikoetako testuak aztertu dira helburu batekin: zenbatzaile zehaztugabeek (eta kardinalak, maila baxuago batean) komunztadura plurala eragin izan duten ala ez aztertzea. Era honetan, testuak garaika sailkatu dira, eta garai bakoi-tzaren barnean euskalkika; euskalki bakoitzetik (ahal izan denean) hiru testu aztertu dira. Adibideak bildu eta aztertu ondoren, ondorio nagusi hauek atera dira:

- (i) Hegoaldean, gaur egun zenbatzaile zehaztugabeak pluralaz komunztatzen bada-
dira ere, historikoki ez komunztatzeke aukera ohikoa zen, batez ere, Euskara
Arkaikoan eta Zaharrean. Zenbatzaile zehaztugabeekin komunztadura plurala
gutxien egiten zuen euskalkia nafarrera zen.
- (ii) Mendeak igaro ahala, gehienetan (ez bada beti) komunztadura plurala egitera iga-
ro dira. Gaur egun, komunztadura eza Hegoaldeko gazteen artean galtzeko bidean
dagoela ematen du, batutako datuen arabera gutxienez. Iparraldean ere, gazteek
erabiltzen dute gutxien (Franco Landa, 2022). Txillardegik (1978) eta Zubirik
eta Zubirik (1994) ziotenez, badirudi galera hori erdararekiko ukipenaren eragina
izan daitekeela, gaur egungo gazteak elebidunak direlako eta, ageri denez, geroz
eta gutxiago hobesten direlako komunztadura pluralik gabeko zenbatzaileak¹¹.
- (iii) Zenbatzaile kardinalak Bizkaiko eta Arabako euskara arkaikoan eta zaharrean
(behintzat) ez ziren pluralaz komunztatzen nahitaez. Kontuan izanik aukera hau
Zuberoako euskararen besterik ez dela gorde (Coyos, 1999), esan genezake garai
batean muturreko euskalkiek gordetako arkaismoa zela, gaur egun, ekialdeko
muturrean besterik ez dagoena.
- (iv) Testu zaharretan, komunztadurarik ez dagoen gehienetan, zenbatzaileek modi-
fikatzen duten ISaren funtzioa objektu zuzenarena da (cf. Franco Landa, 2022).
Hegoaldeko datu sinkronikoetan, ordea, subjektu absolutiboak eragiten du ko-
munztadura gutxien.
- (v) Gaur egungo Iparraldean zein Hegoaldeko testu zaharretan, funtzioa subjektu
ergatiboarena denetan ere zilegi da komunztadura ez egitea. Hala ere, gaur egun-
go Hegoaldeko datuetan ez dirudi onartzen denik, eta Iparraldeko *Norantzeko*
datuetan gutxiengoa da (cf. Franco Landa, 2022).

Laburbilduz, Etxeberriaren eta Etxepareren (2009) lanak aipatzen duen modura, gaur egungo egoera alde batera utziz, lehengo garaietan zilegi zen Hegoaldean hiru funtzioekin zenbatzaile zehaztugabeekin (kardinalekin, kasu batzuetan) komunztadura egitea zein ez egitea. Hala ere, Etxeberriaren & Etxepareren (2009) deskribapenaren

11 Hala ere, hizkuntza beraren barne-prozesua ere izan daiteke. Komunztadura pluralaren hobespena lan honen irismenetik kanpo dago.

arabera, zenbatzaile kardinalekin komunztadura plurala nahitaezkoa da Euskal Herri osoan, Zuberoako sistemari izan ezik. Lan honetan erakutsi da antzina mendebaldean ere aukera bazegoela. Hitz gutxitan, gaur egungo Iparralde eta Hegoalde historikoa bat datoz komunztaduran zenbatzaileen funtzio sintaktikoen eraginari dagokionez, ez, ordea, egungo Hegoaldea. 19. taulak laburbiltzen ditu euskarak erakusten dituen joerak, ikuspegi sinkronikotik eta diakronikotik.

19. taula. Komunztadura-aldakortasunaren joerak lurraldearen, garaia, zenbatzailea eta funtzioaren arabera

	Komunztadura eza → Komunztadura plurala
Ipar Euskal Herria, gaur egun	OZ > Subj. ABS > Subj. ERG
	<i>apur > sobera > gutxi > anitz > asko > aski > zenbait</i>
Hego Euskal Herria, gaur egun	Subj. ABS > OZ > Subj. ERG
	<i>gutxi > asko > zenbait</i>
Hego Euskal Herria, historikoki	OZ > Subj. ABS > Subj. ERG
	<i>hainbat > anitz > (kardinalak) > zenbait > asko > gutxi</i>

5. ERREFERENTZIAK

- Aldai, G. (2012). Sobre el origen de Martín Portal, autor de la poesía premiada en Pamplona en 1610. *Fontes Linguae Vasconum*, 114, 93-117.
- Altuna, F. (1995). Acto contriciocoa eriotzaco orduracò: Garcia de Albeniz araiarraren araberrazko eskuizkribua (1778). *ASJU*, 29(1), 83-132.
- Arriolabengoa, J. (2008). *Euskara Iburguen-Cachopín kronikan. Testu zaharren edizioarako kontribuzioa*. Euskaltzaindia & BBK Fundazioa.
- Artiagoitia, X. (2006). *Euskarazko izen sintagma: arkitektura eta egitura funtzionala* [Argitaratu gabeko eskuizkribua]. UPV/EHU.
- Artiagoitia, X. (2012). The DP hypothesis in the grammar of Basque. In U. Etxeberria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *NPs and nominalizations in Basque: Syntax and semantics* (21.-78. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/la.187.04art>
- Bilbao, G., Gómez López, R., Lakarra, J. A., Manterola, J., Mounole, C., & Urgell, B. (2020). *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa*. UPV/EHU.
- Camino, I. (2014). Ekialdeko euskararen iragana. In I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina* (257.-300. or.). UPV/EHU.
- Casenave-Harigile, J. (2006). *Xiberotar gramatika llaburra*. Sü Azia.
- Corbett, G. (2000). *Number*. CUP.
- Coyos, J.-B. (1999). *Le parler basque souletin des Arbailles: Une approche de l'ergativité*. L'Harmattan.
- De Houwer, A. (2009). *Bilingual first language acquisition*. Clevedon.
- Etxagibel, J., Padilla, M., Ulibarri, K. & Urgell, B. (prestatzen). *Krestomatia. 50 testu Euskara Arkaikoa eta Zaharra ezagutzeko* [Argitaratu gabeko eskuizkribua]. UPV/EHU.
- Etxebarne, J. (2006). *Xiberotar gramatika*. Sü Azia.

- Etxeberria, U. (2012). Quantification in Basque. In E. Keenan & D. Paperno (arg.), *Handbook of quantifiers in natural language* (83.-164. or.). Springer. https://doi.org/110.1007/978-94-007-2681-9_3
- Etxeberria, U. (2014). Basque nominals: From a system with bare nouns to a system without. In A. Aguilar-Guevara, B. Le Bruyn & J. Zwarts (arg.), *Weak referentiality* (335.-364. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/la.219.14etx>
- Etxeberria, U. & Etxepare, R. (2008). Izen eta gertakarien gaineko kuantifikazioa euskaraz. In X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez* (ASJUren gehigarriak, 51) (259.-286. or.). UPV/EHU.
- Etxeberria, U. & Etxepare, R. (2009). Zenbatzaileak komuntzatzen ez direnean: Hiru sistema. *Lapurdum*, 13, 127-144.
- Etxeberria, U. & Etxepare, R. (2012). Number agreement in Basque: Counting vs. measuring. In U. Etxeberria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun phrases and nominalizations in Basque* (149.-178. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/la.187.07etx>
- Etxepare, R. (2000). Asko-ren zenbait alderdi. *Lapurdum*, 5, 99-111.
- Euskaltzaindia. (1985). *Euskal gramatika: Lehen urratsak I*. Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (2021). *Euskararen gramatika* (I. liburukia). Euskaltzaindia.
- Franco Landa, E. (2022). Zenbat dira asko? Euskal zenbatzaile zehaztugabeak aztergai. In D. Krajewska, S. Monforte & E. Zuloaga (arg.), *Aziti Bihia. Euskal filologia eta hizkuntzalaritzaren adarrak* (33.-67. or.). UPV/EHU.
- Goikoetxea Maiza, J. (1984). *Joan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo. Poeta bilingüe alavés del siglo XVIII*. Arabako Foru Aldundia & Euskaltzaindia.
- Gorrotategi, J., Igartua, I. & Lakarra, J. A. (arg.). (2018). *Euskararen historia*. Eusko Jaurlaritza.
- Iturrioz, J. L. (1985). La función de *-a* y de *-ta* a la luz de la dimensión de individualización. *Euskera*, 20, 175-213.
- Jespersen, O. (1924). *The philosophy of grammar*. Allen & Unwin.
- Klasikoen Gordailua. (d. g.). <https://klasikoak.armiarma.eus/>
- Lafitte, P. (1944/1991). *Grammaire basque (navarro-labourdin litteraire)*. Elkar.
- Laka, I. (1993). Unergatives that assign ergative, unaccusative that assign accusative. In J. Bobaljik & C. Phillips (arg.), *Papers on case and agreement* (149.-172. or.). MIT.
- Lakarra, J. A. (1981). Barrutiaren edizio kritiko baterako. *ASJU*, 15(1), 123-156.
- Lakarra, J. A. (1996). *Refranes y Sentencias (1596)*. *Ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia.
- Lakarra, J. A. (1997). Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU*, 31(2), 537-616.
- Larramendi, M. (1729). *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Antonio J. Villagordo.
- Liburuklik. (d. g.). <http://www.liburuklik.euskadi.eus>
- Manterola, J. (2011). *-a* morfemaren erabilera (eza) ekialdeko euskaretan. In J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra* (71.-95. or.). UPV/EHU.

- Manterola, J. (2012). Synchronic ubiquity of the Basque article *-a*: A look from diachrony. In U. Etxebarria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun phrases and nominalization in Basque: Syntax and semantics* (179.-208. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/la.187.08man>
- Martínez Areta, M. (2009a). The category of number in Basque: I. synchronic and historical aspects. *Fontes Linguae Vasconum*, 110, 63-98.
- Martínez Areta, M. (2009b). The category of number in Basque: II. prehistorical and typological aspects. *Fontes Linguae Vasconum*, 111, 249-280.
- Mitxelena, K. (1958). Introducción [a Landuchio]. In M. Agud & K. Mitxelena (arg.), *N. Landuchio. Dictionarium Linguae cantabrigae (1562)*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mitxelena, K. (1964/1990). *Textos arcaicos vascos* (ASJUren gehigarriak, 11). UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mounole, C. & Gómez, R. (2018). Euskara Zahar eta Klasikoa. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (469.-542. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Mounole, C. & Lakarra, J. A. (2018). Euskara Arkaikoa. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (352.-468. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Oyharçabal, B., Salaberria, J. & Epelde, I. (2011). *Norantz datu-basea: aurkezpena eta aditz komunztadurako datuak*. In I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina* (1.-36. or.). UPV/EHU.
- Reguero, U. (2017). *Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak* [Doktore tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/23535>
- Salaberri, P., Zubiri, J. J. & Salaberri, I. (2021). *Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak. Olaberria (Oiartzun). 1790-1807* (bi liburuki). Euskaltzaindia.
- Sarasola, I., (1983). Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. *ASJU*, 17, 69-212.
- Satrustegi, J. M. (1987). *Euskal Testu Zaharrak I*. Euskaltzaindia.
- Txillardegí. (1977). L'emploi de l'indéfini en souletin. *Fontes Linguae Vasconum*, 25, 29-54.
- Txillardegí. (1978). *Euskal gramatika*. Ediciones Vascas.
- Ulibarri, K. (2010). *Viva Jesus* dotrina: edizioa eta azterketa. *ASJU*, 44(2), 41-154.
- Urgell, B. (arg.). (1995-1996). *Testamentu Zarreko Kondaira (I eta II)*. Euskal Editoreen Elkarte.
- Urgell, B. (2015). Landucciren hiztegien ordena eta honen eragina euskarazko hiztegien. In M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez, *Eridenen du zertzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)* (560.-577. or.). UPV/EHU.
- Urgell, B. (2018). Lehen Euskara Modernoa (1745-1891). In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (543.-657. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Zuazo, K. (1998a). Arabako euskara. In H. Knörr & K. Zuazo (arg.), *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak* (125.-189. or.). Eusko Legebiltzarra.
- Zuazo, K. (1998b). *Fraí Juan Zumarraga eta euskara*. Durangoko Arte eta Historia Museoa.
- Zubiri, I. (1994). *Gramática didáctica del euskera* (4. arg.). Didaktiker.
- Zubiri, I. & Zubiri, E. (2000). *Euskal gramatika osoa* (2. arg.). Didaktiker.

5.1. Eranskina

Testu zaharren laburdurak:

- AuAT: *Au Aiskide Txikiendako* (Franzisko Elizalde)
 Dok: Doktrinea (Kapanaga)
 Az.D: Azeri Dantza (Iztueta)
 Dan: Danboliñak besoan darabilen arratza, zertarako ipiñia duen (Iztueta)
 Enk.: *Enkarnazioko Misterioaren Esplikazioa* (Irazusta)
 Esk.: Eskaintza (Kapanaga, Frai Bartolomé)
 Er.: Eranskina (Iztueta)
 Esp.: *Esplikatzeko dirade konfesio onaren kondizioak* (Irazusta)
 Ezp.D: Ezpata Dantza (Iztueta)
 Gip.D: Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia
 Il.: Ilikeo (Añibarro)
 Il.Sart.: *Ilikeo egun baktaxerako. Sart-aurrea* (Añibarro)
 Irak.: Irakurliarentzat (Frai Bartolomé)
 Itz: Itzaurrea edo Prologoa (Iztueta)
 Kap.: Kapituluak (Adibidez: *Kap IV, VII, Otxoa Arin*)
 Kon. Jen: Konfesionario Jenerala: *Seigarren, eta bederazigarren mandamentua eztagigula luxuriazko pekatuak* (Kapanaga, Franzisko Elizalde)
 Mez-Em., Sant.: *Mez-Emollearen yantziak eta mez-emoteko beste behar direanak adierazoten dabena. Santusek* (Añibarro)
 P.: Parte (Adibidez: *7.p.*, Kardaberatz)
 Serm.: Sermoia. *Egiliaren izenbagako sermoe barrija, seme alaba dongadunen konsue-logarrija* (Frai Bartolomé)
 Zortz.: Zortzikoa (Iztueta)

5.2. Eranskina

20. taula. Corpusaren iturriak

Testua	Iturria
Albeniz (1778)*	Altuna (1995)
<i>Amenduxen Eresia</i> (1564)*	Reguero (2017)
Añibarro (1821)	Klasikoen Gordailua (d. g.)
<i>Arrasateko Erreketa</i> (post 1448)	Arriolabengoa (2008), Mitxelena (1964/1990)
Astarloa (1818)	Klasikoen Gordailua (d. g.)
Barrutia (c. 1712)	Lakarra (1981)
Beriain (1621, 1626)	Klasikoen Gordailua (d. g.), I. Caminoren transkripzioa
Betolatza (1596)	Klasikoen Gordailua (d. g.)
Etxalarko dotrina (1749)*	Reguero (2017)
Etxarriko idazkia (1762)	Satrustegi (1987)
Ezkontza fedea: Zufia (1552)*	Reguero (2017)

Testua	Iturria
Frai Bartolome (1807)	Klasikoen Gordailua (d. g.), Urkizaren & Baraiazarraren edizioa
Franzisko Elizalde (1735)	Reguero (2017)
Gamiz (1748, 1773)*	Klasikoen Gordailua (d. g.), Goikoetxea Maiza (1984)
<i>Gure Principe don Henrique Jaunari</i> (1554)*	Reguero (2017)
Inzako izkribua (1772)	Satrustegi (1987)
Irazusta (1739)	Klasikoen Gordailua (d. g.), J. Landa Ijurkoren transkripzioa
Izueta (1824)	Klasikoen Gordailua (d. g.), M. J. Ezeizabarrenaren edizioa
Juan Zumarraga (1537)*	Zuazo (1998b)
Kapanaga (1656)	Klasikoen Gordailua (d. g.), J. Landa Ijurkoren transkripzioa
Kardaberatz (1744)	Klasikoen Gordailua (d. g.), B. Hildagoren transkripzioa
<i>Kondestablearen kantua</i> (1494)*	Reguero (2017)
Landucci (1562)*	Mitxelena (1958), Sarasola (1983)
Lardizabal (1855)	Klasikoen Gordailua (d. g.), Urgell (1995, 1999)
Larrasoñako hitzaldia (1702?)	Reguero (2017)
<i>Laudioko dotrina</i> (1828)*	Liburuklik
Lazarraga (c. 1602)	Bilbao, G., Gómez López, R., Lakarra, J. A., Manterola, J., Mounole, C. & Urgell, B. (2020)
Maria de Jesusen gutunak (1622)*	Klasikoen Gordailua (d. g.)
Mikoleta (1653)	Mitxelena (1964/1990), Sarasola (1983)
Milia Lasturko*	Mitxelena (1964/1990)
<i>Miserere Deus?</i> *	Etxagibel, J., Padilla, M., Ulibarri, K. & Urgell, B. (prestatzen)
<i>Nafar katixima</i> (1614)*	Reguero (2017)
Ororbiako sermoiako sermoia (1758)	Reguero (2017)
Orrioko elizgutuna (1750)*	Reguero (2017)
Otxoa Arin (1713)	Liburuklik
Portal (1609, 1610)*	Aldai (2012), Reguero (2017)
<i>Refranes & Sentencias</i> (R&S) (1596)	Lakarra (1996)
Simancasko gutunak (1598)*	Satrustegi (1987)
Tolosako ezkontitzak (1557)*	Mitxelena (1964/1990)
Tolosako ziri-bertsoak (1619)*	Mitxelena (1964/1990)
<i>Viva Jesus</i> (c. 1640)	Ulibarri (2010)
Zalba & San Martinen gutunak (1415)*	Reguero (2017)

